

**FUNDACIÓN GIPUZKOAKO
PARKETXE SAREA FUNDAZIOA**

2018 EKITALDIKO

URTEKO KONTUAK

EGOERA BALANTZEA
GALDU IRABAZIEN KONTUA

FUNDACIÓN GUIPUZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOA
2018KO ETA 2017KO EKITALDI-ITXIERAKO BALANTZE LABURTUA
(Eurotan)

AKTIBOA	Memoriako oharrak	2018/12/31	2017/12/31	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Memoriako oharrak	2018/12/31	2017/12/31
A) AKTIBO EZ-KORRONTEA		75.285	83.727	A) ONDARE GARBIA		165.745	173.186
Ibilgetu ukiezina <i>Aplikazio informatikoak</i> <i>Garapena</i>	5	0 0 0	0 0 0	A-I) Fondo propioak	8	102.109	110.663
				<i>Fundazio zuzkidura</i> <i>Fundazio zuzkidura</i>		40.000 40.000	40.000 40.000
				<i>Aurreko ekitaldietako emaitzak</i>		70.663	65.228
Ibilgetu materiala <i>Eraikuntzak</i> <i>Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala</i>	5	75.285 3.120 72.165	83.727 3.221 80.506	<i>Ekitaldiko soberakinak</i>		-8.554	5.435
				Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak		63.636	62.523
				B) PASIBO EZ-KORRONTEA		7.300	7.300
				Epe luzeko zorrak <i>Epe luzeko betelako zorrak</i>		7.300 7.300	7.300 7.300
B) AKTIBO KORRONTEA		288.123	193.819	C) PASIBO KORRONTEA		190.362	97.060
Izakinak <i>Komertzialak</i>		26.428 26.428	27.474 27.474	Epe laburreko zorrak <i>Epe laburreko bestelako zorrak</i>	7	1.002 1.002	1.002 0
Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak <i>Bezeroak, salmentengatik eta zerbitzu-emateengatik</i> <i>Hainbat zordun</i>	6	57.988 7.996 49.992	22.222 13.313 8.909	Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak <i>Hainbat hartzekodun</i>	7	189.360 189.360	96.058 96.058
Epe laburreko inbertsioak		2.000	2.000				
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak		201.707	142.123				
AKTIBO GUZTIRA (A+B)		363.407	277.546	ONDARE GARBIA ETA PASIBO GUZTIRA (A+B+C)		363.407	277.546

Erantsitako memorian adierazten diren 1etik 17ra bitarteko oharrak 2018ko eta 2017ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Egoera Balantzearen zati dira

2018ko eta 2017ko ABENDUAREN 31n AMAITUTAKO EKITALDIKO GALDU-IRABAZIEN KONTUA

(Eurotan)

(Eurotan)

	Memoriako oharrak	(Zor) Hartzeko	
		2018/12/31	2017/12/31
Aktibitatearen diru-sarrerak <i>Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak</i>		650.000	605.000
		650.000	605.000
Salmentak eta merkataritza-jardueraren diru-sarrerak	10	89.475	137.493
Enpresak bere aktiborako egindako lanak	10		
Hornikuntzak	10	0	-98
Aktibitatearen bestelako diru-sarrerak			0
Pertsonal-gastuak	10	-66.490	-64.650
Aktibitatearen bestelako gastuak		-669.553	-671.035
Ibilgetuaren amortizazioa		-17.152	-16.451
Emaitzara eramandako subentzio, dohaintza eta legatuak		16.387	15.381
A.1) USTIAPENENKO EMAITZA		2.668	5.640
<i>Sarrera finantziarioak</i>		0	30
<i>Gastu finantziarioak</i>		-201	-235
A.2) EMAITZA FINANTZARIOA		-201	-205
A.3) ZERGA AURREKO EMAITZA		2.466	5.435
Mozkinen Gaineko Zerga			
A.4) Emaitzaren soberakinaren aitortutako ondare garbiaren aldakuntza		2.466	5.435
B) Zuzenean ondare garbira egotzitako sarrerak eta gastuak			
<i>Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak</i>		17.500	17.500
<i>Zerga-efektua</i>		0	0
B.1) Aitortutako galdu-irabaziengatik ondare garbiaren aldakuntza		17.500	17.500
C) Ekitaldiko soberakinaren birsailkapena			
<i>Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak</i>		-16.387	-15.381
<i>Zerga-efektua</i>		0	0
D) Zuzenean egotzitako galdu-irabaziengatik ondare garbiaren aldakuntza		-16.387	-15.381
G) Ondare sozialean edo fundazionalean izandako aldakuntzak		0	
EMAITZA, ONDARE GARBIAREN ALDAKUNTZA		3.579	7.554

Erantsitako memorian adierazten diren 1etik 17ra bitarteko oharrak 2018ko eta 2017ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Egoera Balantzearen zati dira

**FUNDACIÓN GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA
FUNDAZIOA**

**2018KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO
EKITALDIKO MEMORIA LABURTUA**

1. Oharra.- Fundazioaren jarduera.

2009ko abenduaren 23an, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxak, Oñatiko Udalak, Aiako Udalak, Oiartzungo Udalak eta Ataungo Udalak "Fundación Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioa" izeneko fundazioa sortu zuten, ekainaren 17ko 12/1994 Legearen, oraingo ekainaren 2ko 9/2016 Legearen, eta indarreko gainerako xedapen arauemaileen arabera.

Fundazioa irabazi-asmorik gabe eraturako erakunde pribatua da, eta, bere fundatzaileen borondatez, ondarea iraunkorki loturik dauka interes orokorreko helburuak betetzera. Horrela, Fundazioak Gipuzkoan dauden parke naturalak modu integratuan kudeatzea du xede. Helburu zabal horren barruan, hauek izango dira egingo dituen jarduera garrantzitsu eta berehalakoenak:

- a) Gipuzkoako parketxeen sare bat sortzeaz, sustatzeaz eta hedatzeaz arduratuko da, irizpide homogeneoekin kudeatzeko.
- b) Gipuzkoako Parketxeen Sarea osoa kudeatu eta dinamizatuko du.
- c) Parketxe-sare horren bitartez, ingurumen-hezkuntza, ingurune naturalaren ezagutza eta ingurumena errespetatzearen berezko balioen zabalkundea sustatuko du, bai herritarren artean oro har eta bai, bereziki, gipuzkoarren artean.
- d) Naturari lotutako aisialdiko jarduerak eta ingurune naturalarekin harmonian gauzatzen diren jarduera ludikoak sustatu eta bultzatuko ditu.
- e) Gipuzkoako parke naturalen egoera eta beharrak sakonkiago ezagutzera zuzendutako azterketa edo ikerketa-proiektuak egiteaz arduratuko da, ikaskuntza erabilgarriak lortze aldera.
- f) Lankidetzaren sustatuko du aurreko paragrafoetan adierazitako balioak bultzatzeko. Bereziki, ekimen zehatzetan parte hartu ahal izango du, eta horien arrakasta lortzen lagun dezaketen eragile publiko edo pribatuen parte-hartzea bultzatuko du.
- g) Oro har, fundazioak era guztietako ekimenak gauzatu ahal izango ditu, zuzenean edo zeharka Gipuzkoako Parke Naturalen Sarea sustatzeko edo hobetzeko mesedegarriak badira.

Parketxeak eta erantsitako instalazioak Fundazioaren Patronatua eratzen duten erakundeei atxikitako ondasunak dira. Horien ardura eta dinamizazioa Fundación Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari laga diote izenpetutako hainbat lankidetzaren hitzarmenen arabera.

2010eko maiatzaren 10ean, Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Herri Administrazioaren sailburuak ebatzi zuen "Fundación Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioa" Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan F-264 zenbakiarekin inskribatzeko agintzea.

Fundazioak Donostian du egungo helbide soziala, Gipuzkoa kaleko zenbaki gabea (Foru Jauregia).

Fundazio hau ez da garrantzi ekonomikoduna kontsideratzen ez dituelako ekainaren 19ko 100/2007 dekretuaren 26.artikuluak dioen bi baldintza betetzen. Artikulu horietan Euskal Herriko Fundazioen Protektoratuaren Erregelamendua onartzen baita, jarraian doazen bi ekitaldietan, nahiz eta bere urteko kontuak kanpo ikuskaritzapean jarri.

2. oharra.- Fundazioaren urteko kontuak aurkezteko oinarriak

2.1. Irudi fidela

Erantsitako 2018ko ekitaldiko urteko kontuak Fundazioaren 2018ko abenduaren 31ko kontabilitate-erregistroak abiapuntutzat hartuta egin dira. Kontu horietan Kontabilitate Plan Orokorrak onartzen duen 1491/2011 Errege Dekretuan jasotako kontabilitate-printzipioak eta balorazio-irizpideak eta kontabilitate-alorrean indarrean dauden gainerako lege-xedapenak aplikatu dira, eta Fundazioaren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi fidela erakusten dute.

Urteko kontu hauek osatzen dituzten dokumentuetan, hots, egoera-balantzean, galdu-irabazien kontuan, ondare garbian izandako aldaketen egoera-orrian eta memorian zifrak eurotan adierazita daude.

Ez dago ohiz kanpoko arrazoirik, irudi zehatza erakusteko, kontabilitate-alorreko lege-xedapenak ez aplikatu izateko.

Erantsitako urteko kontuak Patronatuaren batzarrak onartzeko aurkeztuko dira, eta inongo aldaketarik gabe onartuko dituela uste da.

2.2. Nahitaezkoak ez diren aplikatutako kontabilitate-printzipioak

Erantsitako finantzen egoera-orrietan eragin esanguratsua duten nahitaez aplikatzeko kontabilitate-printzipio eta arau guztiak kontuan hartu dira. Ez dago aplikatu ez den nahitaezko kontabilitate-printzipiorik.

2.3. Ziurgabetasuna baloratzearen eta zenbatestearen alderdi kritikoak

Fundazioak funtzionamenduan dagoen erakundearen printzipioari jarraiki landu ditu finantzen egoera-orriak. Ez dago hurrengo ekitaldian aktiboen edo pasiboen balioan aldaketa esanguratsuak ekar ditzakeen inolako arrisku garrantzitsurik.

Erantsitako urteko kontuetan, noiz edo noiz, Patronatuko kideek egindako zenbatespenak erabili dira bertan erregistratuta ageri diren aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromisoetariko batzuk kuantifikatzeko. Funtsean, zenbatespen horiek aktibo materialen bizitza utilaren zenbatespenari dagozkio batik bat.

Zenbatespen horiek urteko kontu hauek formulatu zirenean aztertutako gertaerei buruz erabilgarri zegoen informaziorik onenaren arabera egin ziren arren, hurrengo ekitaldietan haiek aldarazi beharra (gorantz edo beherantz) ekar dezaketen gertakariak izan daitezke etorkizunean. Hori modu prospektiboan egingo litzateke, zenbatespen-aldaketak etorkizuneko galdu-irabazien kontuetan izan lezakeen eragina ezagututa.

2.4. Informazioa konparatzea

Kontabilitate Planean ezarritako betebeharraren ondorioetarako, eta uniformetasun-printzipioa eta konparagarritasun-baldintza aplikatuz eratorritako ondorioetarako, 2018ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak aurreko ekitaldiaren kontuekin batera aurkezten dira.

2.5. Hainbat kontu-sailetan jasotako elementuak

Ez da aurkezten balantzearen bi kontu-sailetan edo gehiagotan erregistratutako ondare-elementurik.

2.6. Kontabilitate-irizpideetan izandako aldaketak

Ekitaldian ez da aldaketarik izan kontabilitate-irizpideetan.

2.7. Akats-zuzenketa

2018ko ekitaldiko urteko kontuetan ez dago ekitaldian hautemandako akatsen ondorioz egindako doikuntzarik.

3. oharra.- Ekitaldiko soberakina aplikatzea

2018ko ekitaldiari dagokion soberakina banatzeko proposamena, Fundazioaren Patronatuko Batzarrak formulatua, honakoa da:

Banaketa-oinarria	
Ekitaldiko soberakina	(8.554)
Guztira	(8.554)
Banaketa	
Aurreko ekitaldietako soberakinak	(8.554)
Guztira	(8.554)

2017 ekitaldiari dagozkion urteko kontuak Fundazioaren Patronatuko Batzarrak onartu zituen 2018ko ekainaren 26ko bilkuran:

Banaketa-oinarria	
Ekitaldiko soberakina	5.435
Guztira	5.435
Banaketa	
Aurreko ekitaldietako soberakinak	5.435
Guztira	5.435

4. oharra.- Erregistro eta baloratzeko arauak

Fundazioak 2018ko ekitaldiko urteko kontuak lantzeko erabili dituen balorazio-arau nagusiak, indarrean dagoen legeriaren arabera, honako hauek izan dira:

4.1. Ibilgetu material eta ukiezina

Ibilgetu materiala erosketa-kostuaren arabera baloratuta dago, Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne dela (4.5. oharra).

Konponketa- eta kontserbazio-gastuak egiten diren ekitaldiko emaitzen kargura erregistratzen dira.

4.2. Finantza-tresnak

Fundazioak mugaegunaren arabera sailkatzen ditu zorrak, eta 12 hilabetetik beherako epemuga duten zenbatekoak epe laburrerako zortzat hartzen ditu.

a) Finantza-aktiboak:

Finantza-aktibo bat eskudirua edo beste enpresa baten ondare-tresna bat den edozein aktibo da, edo eskudirua edo beste finantza-aktibo bat jasotzeko edo hirugarrenekin finantza-aktiboak edo -pasiboak baldintza potentzialki onurazkoetan trukatzeko kontratu-eskubidea ekartzen duen edozein aktibo.

Sozietatearen finantza-aktiboen balorazioa honako sailkapen honen arabera egingo da:

Eskudirua eta bestelako baliabide likido baliokideak

Erantsitako egoera-balantzearen epigrafe honen barruan kutxako eta bankuetako eskudirua, ageriko gordailuak eta likidezia handiko epe laburrerako beste inbertsio batzuk erregistratzen dira, kutxan bizkor gauza daitezkeenak eta balioan aldaketak izateko arriskurik ez dutenak.

Kobratzeko maileguak eta kontu-sailak

Epe laburrerako mugaeguna dutenak eta kontratuko interes-tasarik ez dutenak, langileentzako aurrerakinak eta kredituak, kobratzeko dibidenduak eta ondare-tresnen gainean exijitutako ordainketak balio nominalaren arabera baloratuko dira.

b) Finantza-pasiboak:

Jaulkitako, egindako edo bere gain hartutako finantza-tresnak finantza-pasibo gisa sailkatuko dira, osorik edo zati batean, baldin eta, haien errealitate ekonomikoaren arabera, enpresarentzat eskudirua edo beste finantza-aktibo bat entregatzeko edo hirugarrenekin finantza-aktiboak edo -pasiboak baldintza potentzialki kaltegarrietan trukatzeko kontratu-eskubidea ekartzen badute.

Sozietatearen finantza-pasiboen balorazioa honako sailkapen honen arabera egingo da:

Ordaintzeko zorrak eta kontu-sailak

Epe laburrerako mugaeguna duten merkataritza-eragiketen ondorio direnak eta kontratuko interes-tasarik ez dutenak, zeinen zenbatekoa epe laburrean ordaintzea espero baita, balio nominalaren arabera baloratuko dira.

4.3. Balio Erantsiaren gaineko Zerga

Gipuzkoako Foru Ogasunak izaera sozialeko establezimendu pribatuaren izaera ezagutzen dio Fundazioari. Hortaz, aplikatzekoa da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudi fiskala Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 37/1992 Legea egokitzen duen 102/1992 Foru Dekretuaren 20. artikuluko 1. zenbakiaren 14. atalean kultura arloko zerbitzugintzetarako jasotzen den salbuespena, baldin eta foru-dekretu horren 20. artikuluko 3. zenbakian aipatzen diren baldintzak betetzen badira. Era berean, zergapetuta eta salbuetsita egongo dira erakundeak bere kideei zuzenean eta bere berariazko helburuak lortzeko egindako zerbitzugintzak eta ondasun-entrega osagarriak, 102/1992 Foru Dekretuaren 20.1.12. artikuluan ezarritako hitzetan. Halaber, zergapetuta eta salbuetsi gabe egongo dira adierazitakoez bestelako eragiketa guztiak, barne-eragiketetako salbuespenak arautzen dituen 20.1. artikuluan jasotzen ez direnak.

Beraz, Fundazioak Balio Erantsiaren gaineko Zerga jasaten du eta ez du kentzen, eta zergapetutako eragiketen xede diren inbertsio-ondasunen edo zirkulatzailaren eta zerbitzuen erosketa-prezioaren zati da (9. oharra). Ildo horretan, hainbanatze-araua aplikatzekoa da, baldin eta batera egiten baditu kenkarirako eskubidea sortzen duten zerbitzugintzak eta eskubide hori baliatzeko gaitzen ez duten bestelako eragiketak.

4.4. Sozietateen gaineko Zerga

Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauari loturik dago Fundazioa. Fundazioak Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita ditu erakundearen helburuetan laguntzeko jasotako emari eta dohaintzen ondorioz lortutako errentak, ondare-zuzkiduren kontzeptupean egindako ekarpenak edo dohaintzak barne; bazkideek, laguntzaileek edo ongileek ordaindutako kuotak; diru-laguntzak; erakundearen ondare higigarritik eta higiezinetik datozen errentak, hala nola dibidenduak eta sozietateen mozkinetako partaidetzak, interesak, kanonak eta alokairuak; ondasunak edo eskubideak edozein tituluren bidez erostearen edo eskualdatzearen ondorio diren errentak; eta, zerga-araudiaren arabera, erakundeari egozten zaizkionak eta jatorria aurreko errenta salbuetsiren batean dutenak.

Sortutako gainerako errentek 3/2004 Foru Arauaren 12. artikulua araberako ordainduko dituzte zergak, % 10eko zerga-tasan.

4.5. Sarrerak eta gastuak

Sarrerak eta gastuak sortzapenaren irizpidearen arabera egozten dira, hots, ordezkatzeko dituzten ondasun eta zerbitzuen korrante erreala gauzatzen denean, horien ondorio den diru- edo finantza-korrantea gauzatzen den unea gorabehera.

Alabaina, zehaztasun printzipioari jarraiki, Fundazioak ekitaldiaren itxiera-datan egindako mozkinak besterik ez ditu kontabilizatzen, eta aurreikus daitezkeen arriskuak eta galerak, are balizkoak ere, horien berri izan bezain laster kontabilizatzen dira.

4.6. Ingurumen-izaerako ondare-elementuak

Babesleek baieztatu dute Fundazioak ez duela ondareari, finantza-egoerei eta emaitzei loturik esanguratsua izan daitezkeen ingurumen-izaerako erantzukizunik, gasturik edo aktiborik, ezta hornidurarik eta kontingentziarik ere.

4.7. Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

Itzuli beharrik gabeko kapitaleko diru-laguntzak emandako zenbatekoaren arabera baloratzen dira, hasiera batean ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrera gisa aitortzen dira eta emaitzei egozten zaizkie diru-laguntza horiek finantzatu dituzten aktiboek aldi horretan izan duten balio-galeraren proportzioan, balioa galdu ezin duten aktiboak direnean izan ezik, kasu horretan besterentzen diren edo inbentarioan baja ematen zaien ekitaldiko emaitzari egotziko baitzaizkio.

5. oharra.- Ibilgetu materiala eta ukiezia

2018 eta 2017ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian ibilgetu materialaren kontuetan izandako mugimendua honako hau izan da:

	Eraikuntzak	Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu materiala	Guztira
HASIERAKO SALDO GORDINA, 2017 EKITALDIA	3.330	171.647	174.977
(+) Bestelako sarrerak		19.670	19.670
BUKAERAKO SALDO GORDINA, 2017 EKITALDIA	3.330	191.317	194.647
AMORTIZAZIO METATUA, HASIERAKO SALDOA 2017	8	95.697	95.705
(+) 2017 Ekitadiko amortizazio zuzkidurak	101	15.113	15.214
AMORTIZAZIO METATUA, BUKAERAKO SALDOA 2017	109	110.810	110.919
BUKAERAKO SALDO GARBIA, 2017 EKITALDIA	3.221	80.507	83.728
HASIERAKO SALDO GORDINA, 2018 EKITALDIA	3.330	191.317	194.647
(+) Bestelako sarrerak	0	19.703	19.703
(-) Bajak	0	-12.366	-12.366
BUKAERAKO SALDO GORDINA, 2018 EKITALDIA	3.330	198.654	201.984
AMORTIZAZIO METATUA, HASIERAKO SALDOA 2018	109	110.810	110.919
(+) 2018 Ekitadiko amortizazio zuzkidurak	101	17.052	17.153
(-) Bajak		-1.373	-1.373
AMORTIZAZIO METATUA, BUKAERAKO SALDOA 2018	210	126.489	126.699
BUKAERAKO SALDO GARBIA, 2018 EKITALDIA	3.120	72.165	75.285

2018 eta 2017ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian ibilgetu ukiezinaren kontuetan izandako mugimendua honako hau izan da:

	Garapena	Aplikazio informatikoak	Guztira
HASIERAKO SALDO GORDINA, 2017 EKITALDIA	13.875	13.291	27.166
(+) Bestelako sarrerak			0
BUKAERAKO SALDO GORDINA, 2017 EKITALDIA	13.875	13.291	27.166
AMORTIZAZIO METATUA, HASIERAKO SALDOA 2017	12.638	13.291	25.929
(+) 2017 Ekitadiko amortizazio zuzkidurak	1.237		1.237
AMORTIZAZIO METATUA, BUKAERAKO SALDOA 2017	13.875	13.291	27.166
BUKAERAKO SALDO GARBIA, 2017 EKITALDIA	0	0	0
HASIERAKO SALDO GORDINA, 2018 EKITALDIA	13.875	13.291	27.166
(+) Bestelako sarrerak			0
BUKAERAKO SALDO GORDINA, 2018 EKITALDIA	13.875	13.291	27.166
AMORTIZAZIO METATUA, HASIERAKO SALDOA 2018	13.875	13.291	27.166
(+) 2018 Ekitadiko amortizazio zuzkidurak			0
AMORTIZAZIO METATUA, BUKAERAKO SALDOA 2018	13.875	13.291	27.166
BUKAERAKO SALDO GARBIA, 2018 EKITALDIA	0	0	0

6. oharra.- Finantza-aktiboak

Fundazioaren balantzearen aktiboko finantza-tresnen informazioa honako hau da:

Epe laburrean kobratzeko kontuak:

Erantsitako egoera-balantzearen epigrafe honetan batez ere 2018ko abenduaren 31n sortu eta kobratzeko dauden diru-laguntzak erregistratzen dira. Hona hemen xehetasuna:

Deskribapena	2018	2017
GFA	45.000	3.750
Ataungo Udala	5.000	5.000
Guztira	50.000	8.750

Kontu-sailaren gainerakoa zerbitzugintzaren ondorioz kobratzeko dagoen saldoari dagokio, 7.995,65 euroko zenbatekoaz (13.312,84 euro 2017 ekitaldian), eta BEZaren ondoriozko saldo zordunari 0 euroko zenbatekoaz (207,49 euro 2017).

7. oharra.- Finantza-pasiboak

Sozietatearen balantzearen pasiboko epe luzerako finantza-tresnak, kategorien arabera sailkatuak, honako hauek dira:

	Bestelakoak	
	2018	2017
Ordaintzeko zorrak eta kontu-sailak	7.300	7.300
Guztira	7.300	7.300

Epe luzera 6.000 euro eta 1.300 euro zenbatekoan jasotako bi bonu inguru dira hurrenez hurren.

Sozietatearen balantzearen pasiboko epe laburrerako finantza-tresnak, kategorien arabera sailkatuak, honako hauek dira:

	Bestelakoak	
	2018	2017
Ordaintzeko zorrak eta kontu-sailak	184.782	92.280
Pertsonala (ordaintzeko dauden lansariak)	690	0
Guztira	185.472	92.280

Izenburu honetan hornitzaileei ordaintzeko zain dauden zorrak erregistratuta dauden fundazioaren hartzekodunek ordaintzen dituzten zerbitzuen ordainketa egiteko eta baita ordaintzeko dauden lansariak erregistratuta daude.

8. oharra.- Funts propioak

Funts propioen kontuek 2018ko ekitaldian izan duten mugimendua honako hau izan da:

	Funts soziala	Aurreko ekitaldietako soberakinak	Ekitaldiko soberakina	Funts propioak guztira
18-01-01ko saldoa	40.000	65.228	5.435	110.663
Gehitzeak			-8.554	-8.554
Eskualdatzeak		5.435	-5.435	0
18-12-01ko saldoa	40.000	70.663	-8.554	102.109

Fundazio-zuzkidura

2018ko abenduaren 31n, Fundazioa eratu zenean (2004ko azaroaren 22a) fundatzaileek egindako hasierako ekarpenek osatzen dute fundazio-zuzkidura eta 2014ko 1.000 euroko ekarpena, Zegamako Udaletxearen Fundaziora sartzearen jatorri duena.

9. oharra.- Zerga-egoera

Fundazioaren IFK G-75017863 da. Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriari buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauari loturik dago Fundazioa (ikus 4.4. oharra).

Erantsitako egoera-balantzearen epigrafe honen osaera, 2018ko abenduaren 31n, honako hau da:

Administrazio publikoekiko bestelako kredituak/zorrak	Saldo zorduna	Saldo hartzekoduna
Ogasun Publikoa, BEZaren ondorioz		201
Ogasun Publikoa, PFEZren ondorioz		3.183
Administrazio publikoak, diru-laguntzen ondorioz	50.000	
Gizarte Segurantzaren erakundeak		1.491
Administrazio publikoak, beste zor batzuk (Geroa)		15
Totala	50.000	4.890

Memoria hau jaulki den datan, Fundazioaren azken ekitaldiak irekita daude zerga-agintariak haren jarduera zergapetzen duten zerga guztiak ikuskatzeko.

Fundazioa Balio Erantsiaren gaineko Zergatik (BEZ) salbuetsita dago. 2010eko abenduaren 22an zentsu-aitorpena aurkeztu du, eta, bertan adierazi duenez, eragiketa salbuetsiak egiten ditu Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuaren 20. artikulua araber. Eragiketa horiek Gipuzkoako Parketxeetako instalazioak mantentzearekin, jendarteratzearekin eta erabiltzearekin zerikusia dutenak dira. Bestalde, beste jarduera bat ere egiten du: Gipuzkoako Parketxeekin zerikusia duten gaiei buruzko liburuak argitaratzea eta saltzea, eta jarduera hori BEZari lotuta egongo litzateke (ikus 4.3. oharra).

Ezin dira objektiboki zehaztu zerga-agintariek Fundazioarentzat ikuskatzeko modukoak diren ekitaldi guztiak berraztertzearen ondorioz etorkizunean izan litezkeen pasiboak eta kontingentziak. Alabaina, zuzendaritzaren iritziz, sor litekeen pasiboak ez luke eragin esanguratsurik izango erantsitako finantzen egoera-orrietan, eta, horrenbestez, ez da inongo hornidurarik erregistratu pasibo eta kontingentzia horiei aurre egiteko.

10. oharra.- Sarrerak eta gastuak

A) Sarrerak

Salmentak eta bestelako ohiko sarrerak	2018	2017
Sarrerak	33.809	34.420
Dinamizazioa	51.286	98.264
Mapak, gidariak eta liburuak	821	1.316
Kanon	3.276	3.276
Bestelako sarrera	283	216
Guztira, Salmentak eta bestelako ohiko sarrerak	89.475	137.493

Bestelako sarrerak-Ustiapeneko diru-laguntzak	2018	2017
GFA	520.000	475.000
KUTXA Obra Social	30.000	30.000
Oñatiko Udala	20.000	20.000
Aiako Udala	20.000	20.000
Ataungo Udala	20.000	20.000
Oiartzungo Udala	20.000	20.000
Zegamako Udala	20.000	20.000
Guztira, Bestelako sarrerak-ustiapeneko diru-laguntzak	650.000	605.000

B) Gastuak

Ustiapeneko gastuak	2018	2017
Alokairuak eta kanonak	6.688	6.511
Konponketak eta mantenuak	3.203	2.217
Ordainsariak	24.801	23.860
Garraioak	9.240	9.735
Aseguruko primak	8.365	8.212
Publizitateta eta komunikazioa	4.294	5.053
Hornidurak (ura, argia eta telefonoa)	56.284	55.596
Bestelako gastuak (dinamizazioa, formakuntza, etab)	555.212	555.909
Bestelako tributuak	1.492	3.942
Guztira ustiapeneko gastuak	669.580	671.035

Langile-gastuak: 66.489,68 euro (64.650,10 euro 2017 ekitaldian). fundazioaren gerentearen soldatari dagozkie, Gizarte Segurantzaren kostua 14.873,39 euro (14.787,24 euro 2017 ekitaldian) eta 583,54 euroko (567,49 euro 2017 ekitaldian) beste gastu sozialak barne direla ere.

11. oharra.- Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

Erantsitako egoera-balantzearen epigrafe honen osaera, 2018ko abenduaren 31n, honako hau da:

	2017	Diru-laguntza Berriak	Emaitzak transferitu	2018
Diru-laguntzak	62.523	17.500	-16.387	63.636
Total	62.523	17.500	-16.387	63.636

Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako 17.500 euroko ekarpena, kapitaleko diru-laguntzat erregistratu da. Diru-laguntza hau, Parketxe desberdinen artean banatuko dira hauen egokitzapena eta berrikuntza finantzatzeko. 16.387,24 euro (15.380,89 euro 2017 ekitaldian) egotzi dira ekitaldiko emaitzara.

Urtean jasotako diru-laguntzen zenbatekoa 650.000 eurokoa izan da (605.000 euro 2017 ekitaldian) bere xehetasunak memoria honetako 10. Oharrean azaltzen dira.

12. oharra.- Entitatearen helburu soziala. Ondare-elementuak helburu propioetara aplikatzea. Administrazio-gastuak.

a) Entitatearen helburu soziala

2018an egindako jarduerak honakoak dira:

Ingurumen-heziketa, natur ingurunearen ezagutza eta ingurumenarekiko errespetuaren berezko balioen zabalkundea sustatzen jarraitu da, bai herritarren artean, oro har, eta bai gipuzkoarren artean ere, bereziki. Eginkizun horrek eragile eta kolektibo espezializatu batzuen ardura izaten jarraitu du, guztiak proposamen eta zerbitzu desberdinak burutzen dituztenak Parketxeetan (bisitak, ibilbideak, unitate didaktikoak eta abar). 2015ko ekitaldian, lehentasuna eman zaie 2011an sortutako eskaintza / produktuak gizaratean zabaltzeari eta, ildo horretan, funtsezkoa izan da erabiltzaileen feedbacka zaintzea eta aztertzea. Horrez gain, produktu eta zerbitzu berriak sortzeko ahalegina egin da.

Naturarekin loturiko aisialdi-jarduerak eta natur ingurunearekin harmonian egiten diren jolas-jarduerak sustatzeko helburuz, sektore honekin zuzenean nahiz zeharka erlazionatuta dauden hainbat erakunderekin elkarlanean jarduten ahalegindu gara, horiek izaera publikoa eduki nahiz izaera pribatua eduki. Ingurumen-heziketaren eta naturarekin loturiko aisialdiaren alorrean udal, eskualde nahiz probintzia mailan lan egiten duten beste eragile batzuekin aliantzak egitea izan da helburua, elkarrekin zerbitzu batzuk eskaintzearren, eskalako ekonomiak sortzearren eta dagokigun eremu honetan zerbitzuen eskaintza pixkanaka homogeneizatzen joatearren. Atal honetan funtsezkoak izan dira berez kudeaketa-lanak diren horiek (bilerak, bisitak, hitzarmenak...).

Fundazioaren eragin-eremua edo "merkatua" zabaltzeko, Gipuzkoa eta Euskal Herriko gainerako eskualdeetan ez ezen, kanpoan ere gure lurraldeko ingurumen-heziketaren eta naturarekin loturiko aisialdiaren erreferentzia nagusietarikoak izan arte, aurreko puntuan jasotako jardueraz gain, Parketxe Sareari buruzko informazioa banatu da hainbat euskarritan (ingelera eta frantsesa erabiltzen ahaleginduz), Parketxe edo interpretazio-zentroen sareak eskaintzen dituen zerbitzuen eta proposamenen berri emanez. Material horiek izaera orokorra izan dute kasu batzuetan (elementu komunak, sarearen nortasuna), eta beste batzuetan izaera berezia izan dute (Parketxe bakoitzaren ezaugarriak, aisialdi eta ingurumen-hezkuntzako proposamen desberdinen xehetasunak).

Kontuan izanik Fundazioaren helburua Gipuzkoan ditugun Natur Parkeetako interpretazio-zentroen edo Parketxeen kudeaketa integratua burutzea dela, funtsezko lan-ildo bat zentro horien artean sinergia bultzatuz, Horri begira, Parketxeetako jarduerak eta, halaber, Parketxeen kudeaketa esleitua duten eragile eta kolektibo desberdinen arteko harremanak zentralizatzen aurrerapausoak eman dira. Adierazi beharra dago Parketxe Sarearen kudeaketa integralak fundazioarentzat gastu garrantzitsu bat egitea dakarrela interpretazio-zentroen kontsumo eta mantentze-lanekin loturik. Fluxu ekonomiko horiek kontrolatzea ezinbestekoa da fundazioaren kaudimenerako.

Parketxeen baliabideak eta ekipamenduak osatzeko, hobetzeko eta berritzeko inbertsioak egin dira.

Arantzazuko aterpetxeko jarduera sustatu da (haren kudeaketa fundazioaren esku utzi zen 2017an). Aterpetxeak gainerako parketxeekin eta, bereziki, Arantzazukoarekin ahalik eta sinergiarik handiena izatea da helburua.

Zenbait inbertsio egin dira Parketxeetako baliabideak eta ekipamenduak osatzeko, hobetzeko eta berritzeko, ahal den heinean, parketxez arduratzen diren eta horiek dinamizatzen dituzten enpresek egindako iradokizunak kontuan hartuta.

b) Ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa

Jardueran erabiliko diren baliabide ekonomikoen aurreikuspena eta benetakoak:

GASTUAK / INBERTSIOAK	Aurreikusia		Ez jarduera esleitu	Aurreikusia guztia	Egina	Desbideratzea
	Jarduera 1	Jarduera 2				
Pertsonaleko gastuak			66.490	66.490	66.490	0
Jardueraren beste gastu batzuk	637.410		32.143	669.553	669.553	0
Ibelgetua amortizatzea	17.152			17.152	17.152	0
Besterentzen eta bestelako enaitzak	10.993			10.993	10.993	0
Finantza-gastuak	201			201	201	0
Bestelako enaitzak	27			27	27	0
Gaztuen guztizko partzialak	665.783	0	98.633	764.416	764.416	0
Ibilgetua eskuratzea	19.703			19.703	19.703	0
Inbertsioen guztizko partziala	19.703	0	0	19.703	19.703	0
Guztira	685.486	0	98.633	784.119	784.119	0

Erakundeak lortu beharreko guztizko baliabide ekonomikoen aurreikuspena eta benatakoak:

SARRERAK / BESTE BALIABIDE BATZUK	Aurreikusia	Egina	Desbideratzea
Jarduen beste sarrerak	125.000	89.475	35.525
Sektore publikoko diru-laguntzak	594.132	636.387	-42.255
Ekarpen pribatuak	30.000	30.000	0
Finantzetako diru-sarrerak	0	0	0
Lortu beharreko diru-sarreraren aurreikuspena guztira	749.132	755.862	-6.730
Inbertsiorako diru-laguntzak	17.500	17.500	0
Lortutako beste baliabide batzuk guztira	17.500	17.500	0
Guztira	766.632	773.362	-6.730

Jardueraren onuradunak edo erabiltzaileak

Mota	Aurreikusia	Egina
Pertsona fisikoak	50.000	59.431

c) Ondare-elementuak helburu propioetara aplikatzea

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 29. artikulua araberak, Fundazioaren sarreraren % 70 gutxienez fundazio-borondateak zehaztutako helburuak betetzera zuzendu behar da, eta, gainerakoa, administrazio-gastuak kendu ondoren, fundazio-zuzkidura handitzera. Artikulu honek aztergai dituen errenta edo sarreraren proportzioa haiek lortzen diren unetik hasi eta hiru urteko epean zuzendu ahal izango du Fundazioak dagokion xedera.

Fundazioak lortutako sarrera garbien % 100 zuzendu du fundazio-borondateak zehaztutako helburuak betetzera.

d) Administrazio-gastuak y diru-sarrerak helburu

2018ko ekitaldian, Fundazioak 66.489,68 euroko administrazio-gastuak izan ditu gerentzia-kontzeptupean (64.650 euro 2017 ekitaldian).

FUNDACIÓN GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOA
2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko memoria

Diru sarrera eta errenten aplikazioa

Ekitaldi	Diru sarrerak (*)	Aplikatzeko Errenta	%	Fundazioaren borondatea aurrera eramateko erabilitako baliabideak (Gastu eta Inbertsioak) (1)	2014	2015	2016	2017	2018	Aplikatzeko zenbatekoa
2013	0	0	70%							0
2014	718.656	503.059	70%	730.101	730.101					0
2015	684.839	479.387	70%	710.912		710.912				0
2016	729.054	510.338	70%	743.623			743.623			0
2017	757.874	530.512	70%	772.138				772.138		0
2018	755.862	529.103	70%	784.119					784.119	0

(*) 100/2007 DEKRETUA, ekainaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duena, 21. artikulua.

Ekitaldian aplikatutako baliabideak:

	Zenbateko (2018 ekitaldia)			Guztira
	Funts propioak	Diru laguntzak	Zorrak	
a)Gastuak				764.416
b)Ibilgetua eskuratzea	2.203	17.500		19.703
Guztira (a)+ b)				784.119

Administrazio gastuak

Kontu zenbakia	Galdu irabazien kontuko partida	Gastu Xehetasuna	Inputazio irizpidea (%)	Zenbateko
64	Perts. Gastuak	Gerentzia	100%	66.490
Administrazio gastuak				66.490
Dirusarrera garbiak				755.862
Ehuneko				9%

13. oharra.- Lotutako alderdiekiko eragiketak

Lotutako alderdiekin ez dago lizentziei buruzko akordiorik, finantzaketa-akordiorik, erosteko edo saltzeko aukerretarako konpromiso irmorik, lotutako zenbait alderdik erabiliko dituzten ondasun eta zerbitzuen produkzioarekin erlazionatutako kostuak banatzeko akordiorik, diruzaintza kudeatzeko akordiorik eta zorrak barkatzeko eta horiek preskribatzeko akordiorik.

Lotutako alderdiekiko transakzio bakarrak aurreko oharretan azaldu eta zehaztu diren babesleek emandako ustiapeneko diru-laguntzei dagozkie.

14. oharra.- Bestelako informazioa

Ekitaldian enplegatutako batez besteko langile kopurua bat izan da.

Fundazioaren Patronatuari buruzko informazioa

Fundazioaren Patronatuak honako osaera hau du 2018ko abenduaren 31n:

Gipuzkoako Foru Aldundia: Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuko foru-diputatu titular Ainhoa Aizpuru Murua andrea (lehendakaria), Mendietako eta Natura Inguruneke zuzendari nagusi Aranzazu Ariztimuño Larraza andrea (lehendakariordea), Maria jose Telleria Etxeberria andrea (kidea), Xabier Arruti Olazabal jauna (diruzaina), eta Alfonso Acarreta Rodriguez jauna (idazkaria) izango ditu ordezkari.

Oñatiko Udala: Mikel Biain Berraondo jauna (kidea) izango du ordezkari.

Aiako Udala: Nekane Arrizabalaga Manterola andrea (kidea) izango du ordezkari.

Oiartzungo Udala: Eneritz Arbelaitz Sarasti andrea (kidea) izango du ordezkari.

Ataungo Udala: Asier Rodriguez Etxeberria jauna (kidea) izango du ordezkari.

Zegamako Udala: Joseba Izagirre Arozena jauna (kidea) izango du ordezkari.

Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxak Carlos Ruiz Gonzalez jauna (kidea) eta Mikel Insausti Muguruza (kidea) izango ditu ordezkari.

Patronatuko kideek ez dute inongo ordainsaririk jasotzen. 2018ko abenduaren 31n ez dago indarrean Patronatuari emandako aurrerakinik edo krediturik, ezta pentsioen edo bizi-aseguruen alorreko obligaziorik ere.

Halaber, ez dago inongo kontratu-harremanik Patronatuko kideen eta Fundazioaren artean.

15. oharra.- Ekitaldia itxi ondorengo gertaerak

Ez dago ekitaldia itxi ondorengo gertaerarik, ekitaldiaren itxiera-datan zeuden inguruabarrak nabarmentzen dituenik, eta erregistro- eta balorazio-araua aplikatzearen ondorioz, urteko kontuak osatzen dituzten dokumentuetan bildutako zifretan doikuntzaren bat sartzea ekarri duenik edo erantsitako urteko kontuetan doikuntzarik ekarri duenik, nahiz eta memorian bildutako informazioa gertaera horren arabera aldatu behar izan edo gertaera horiek urteko kontuen erabiltzaileen ebaluazio-ahalmenari eragiteko moduko garrantzia izan.

Ez dago funtzionamenduan dagoen erakundearen printzipioaren aplikazioan eragina duen ekitaldia itxi ondorengo gertaerarik.

16. Oharra - Hornitzaileei egindako ordainketa geroratuei buruzko informazioa.
Uztailak 5eko 15/2010 legearen, "Informazio obligazioa", hirugarren xedapen erantsia.

Ordaintzeko batez besteko epea 76,24 egunekoa da (63 egun 2017 ekitaldian).

17. Inbentarioa

Deskribapena	Zenbatekoa	Metatutako amortizazioa	Saldo garbia
Arditurri Garapena	2.775	2.775	0
Iturrarán Garapena	2.775	2.775	0
Lizarrusti Garapena	2.775	2.775	0
Arantzazu Garapena	2.775	2.775	0
Barandiarán Garapena	2.775	2.775	0
Aplikazio informatikoak	13.291	13.291	0
<i>Ibilgetu Ukiezina</i>	<i>27.166</i>	<i>27.166</i>	<i>0</i>
Lizarrusti Eraikuntzak	3.330	210	3.120
Instalazio teknikoak	425	340	85
Arditurri instalazio teknikoak	24.629	18.979	5.650
Lizarrusti instalazio teknikoak	1.132	666	466
Arantzazu instalazio teknikoak	852	597	255
Iturraran Makineria	1.423	204	1.219
Lizarrusti Makineria	8.389	4.623	3.766
Barandiarán Makineria	2.258	2.090	168
Arantzazuko Aterpetxea Makineria	1.208	258	950
Iturraran Bestelako instalazioak	6.515	3.522	2.993
Lizarrusti bestelako instalazioak	64.052	21.383	42.669
Arantzazu bestelako instalazioak	21.683	19.526	2.157
Arditurri Altzariak	5.497	3.734	1.763
Iturraran Altzariak	847	634	213
Lizarrusti Altzariak	7.602	6.772	830
Arantzazu Altzariak	2.926	2.673	253
Barandiaran Altzariak	4.550	2.363	2.187
Arantzazu Altzariak	7.565	6.677	888
Estación Trail Altzariak	7.638	2.907	4.731
Beste Altzariak	2.433	2.365	68
Arditurri Informazioa prozesatzeko ekip.	1.255	1.255	0
Iturraran Informazioa prozesatzeko ekip.	1.953	1.702	251
Arantzazu Informazioa prozesatzeko ekip.	1.026	966	60
Barandiaran Informazioa prozesatzeko ekip.	1.255	1.255	0
Arantzazuko Aterpe.Informazioa prozesatzeko ekip.	135	49	86
Beste Informazioa prozesatzeko ekip.	2.580	2.122	457
Garraio elementuak	18.826	18.826	0
<i>Ibilgetu Materiala</i>	<i>201.983</i>	<i>126.698</i>	<i>75.285</i>
<i>Izakinak</i>	<i>26.428</i>		<i>26.428</i>
<i>Fidantzak</i>	<i>2.000</i>		<i>2.000</i>
<i>Kutxa</i>	<i>7.482</i>		<i>7.482</i>
<i>Kutxabank Kontu Korrontea</i>	<i>194.225</i>		<i>194.225</i>
2017ko ekitaldiko saldoa	459.283	153.864	305.420

Donostia / San Sebastián, 2019ko martxoaren 29